# Lanaldia: jaitsi ezin den langa

**Lanaldia laburtzeko eskaria apurka berpizten ari da Hego Euskal Herrian. Sindikatuek argi dute 35 ordutik beherako lan asteak aztertu behar direla; enpresariek, berriz, negoziazio mahaietan eztabaidatu beharreko auzi bat dela.**




Imanol Magro Eizmendi

Asteartean 25 urte beteko dira Hego Euskal Herrian inoiz deituriko greba orokor arrakastatsuenetako bat egin zenetik. Hala diote orduko kronikek, eta gogoratzen dutenek erantzun zabala berresten dute. *Euskaldunon Egunkaria*-ren arabera, 1999ko maiatzaren 21ean «ia Euskal Herri osoa» gelditu zen «lana eta aberastasuna banatzearen alde». 35 orduko lan astearen aldeko mobilizazioa izan zen, eta sindikatu guztiek babestu zuten. Ipar Euskal Herrian urtebete lehenago ezarria zen *Aubry legearen* bitartez, eta Bidasoan behera ere zabaldu nahi zuten. Protestak eragina izan zuen, handik gutxira lanaldi hori ezarri baitzen eremu publikoan, eta sindikatu eta patronalek lanaldi murrizketa handiak adostu zituzten eremu pribatuko lan hitzarmen askotan.

Hurrengo 25 urteetan, baina, gutxi aldatu da lanaldiaren argazkia, edo hobe esanda, ordutegia. Eskaerak, halere, indar berezia hartu du berriz, Yolanda Diaz Espainiako Lan ministroak legegintzaldi honetan gehienezko lanaldia asteko 37,5 ordura murrizteko asmoa plazaratu baitu. Sindikatuek, hala ere, argi dute are gehiago murrizteko baldintzak badaudela. «1999an oldarraldi handia egon zen, eta uste dugu orain beste bat egin behar dela beste neurri batzuk hartuz. Garai hartan, enplegua banatzeak zuen zentralitatea; orain, digitalizazioa baliatu behar da langileen bizi baldintzak hobetzeko». Iragarpena Oihana Lopetegirena da, LAB sindikatuko ekintza sindikaleko arduradunarena.

Baina zein da errealitatea? Zenbat lan egiten da Hego Euskal Herrian? Lan Harremanen Kontseiluaren otsaileko datuen arabera, Araban berrituta dauden lan hitzarmenek urteko 1.704 orduko lanaldia dute batez beste (37,4 ordu astean); Bizkaikoek, 1.683 ordukoa (37 ordu astean); eta Gipuzkoakoek, 1.685 ordukoa (37,04 ordu astean). Nafarroan Espainiako Gobernuak ematen ditu datuak, eta, haren arabera, 1.708 ordukoak dira urteko lanaldiak (37,55 ordu astean). Datu horiek enpresa eta sektore hitzarmenak nahastuta lortzen dira. Alderatzen jarrita, Espainiako hitzarmenen batez besteko lanaldia 1.764 ordukoa da urtean.

Gaia puri-purian dago, baina Confebask EAEko enpresa elkartearen ustez, gaur egun lanaldiaren murrizketa ez da buruhauste bat enpresarientzat: «Urteak daramatzagu lanaldi murrizketak adosten, eta egungo datuek erakusten dute gure lan itunetako lanaldia Espainiako Gobernuak inposatu nahi duena baino txikiagoa dela». Patronalak onartu du lanaldia murrizteak kontziliazioa, talentuaren erakarpena eta enpresa kulturaren garapena sustatzen dituela, baina produktibitatearen aldagaia

eransten dio ekuazioari: «Lanaldia murriztea adosten bada, produktibitateak modua ematen duelako egiten da, eta langile eta enpresek beren jarduna lehen baino baldintza hobeagoetan garatu dezaketelako».

**Produktibitatea, goraka**

Sindikatuek, dena den, ez diote beldurrik aldagai horri. Ez behintzat Pello Igeregi ELAko negoziazio kolektiboko arduradunak: «Enpresen irabaziak inoizko handienak direla ikusten ari gara. Ez dago produktibitate arazorik enpresetan. Ez dago oztoporik lanaldi murrizketa handiagoak lortzeko». Mikel de la Fuente EHUko zuzenbide irakasle ohia iritzi berekoa da. «Azken urteetan, produktibitatea asko handitu da. Haren eraginaren zatirik handiena enpresen mozkinetara joan da; zati txiki bat, soldatetara; eta lanaldira, ezer ez. 1983an 44 ordutik 40ra murriztu zenetik, ez da lanaldia ukitu Hegoaldean».

Confebaskek dioena egia da: Hego Euskal Herriko enpresa eta sektore askotan, lanaldia 37,5 ordutik beherakoa da. Igeregik gogoratu du, esaterako, funtzio publikoko azpikontrata askotan aplikatzen dela jada, eta duela gutxi anbulantzietako gidariek lortu dutela.

Dena den, «sektoreen arteko desoreka» badela gehitu du Lopetegik, lantoki batzuetan eragina izango baitu 37,5 orduen mugak: «Neurriak Espainian baino eragin txikiagoa izango du Euskal Herrian. Errealitatea oso ezberdina da. Baina egia da hemen sektore batzuetan: feminizatuak, ostalaritza bulegoetan... lanaldia murriztea zaila dela oro har. Eta gero etxeko langileak daude, lan hitzarmenik ere ez dutenak».

**Negoziazioak, «hemen»**

Zaila? Zergatik? ELAko kideak auziaren bere ikuspuntua eman du: «Patronalak, orain gutxi, betoa jarri dio lan murrizketaz hitz egiteari elkarrizketa sozialeko mahaian. Lanaldiaren borroka konplikatua da, aldagai garrantzitsua delako eta ez diolako bide eman nahi». Lopetegik jarraitu du: «1999an lanaldi murrizketa handiak lortu ziren. Baina zer sektoretan? Antolakuntza eta ordezkaritza gaitasuna garrantzitsuak dira halakoak lortzeko. Azken urteetan lanaldi murrizketak lortu ditugu, baina txikiagoak dira. Gradualki doa».

Negoziazioak zailak izan arren, enpresa elkarteak eta sindikatuak bat datoz lanaldiak Euskal Herrian negoziatu beharreko aldagai bat izan beharko lukeela. Hori bai, bi aldeen arrazoiak ezberdinak dira. Confebaskentzat, esaterako, Espainiako Gobernuaren jarrera «esku hartze ulertezina» da, «negoziazio kolektiboa ondo dabilelako», eta lan baldintzak «sektoreka eta enpresaka» zehaztu behar direla uste duelako. Antzera mintzatu zen Carolina Perez Toledo Cebek Bizkaiko patronaleko presidentea iragan asteko agerraldian: «Lan baldintzak negoziazio mahaietan ezarri behar dira, gizarte eragileen artean. Haien autonomia errespetatu behar da, sektore bakoitzaren berezitasunaren arabera».

Sindikatu abertzaleek, aldiz, begi onez ikusten dute lanaldia legez mugatzea, baina arau hori euskal lan esparruan negoziatu beharko litzakeela aldarrikatu du Igeregik. «Kualitatiboki eztabaida oso ezberdina izango genuke. 37,5 orduri buruz ez, baizik beste lanaldi motzago batzuei buruz hitz egiten egongo ginateke».



Jatetxe bateko langile bat, fitxaketa sistema erabiltzen. Ordutegien kontrola ezinbestekoa da lanaldia murrizteko. JUAN HERRERO / EFE

**«Enplegu sorreran eragin nabarmena izatea bilatzen badugu, agian 27-28 orduan jarri beharko litzateke lan astearen langa»**

**MIKEL DE LA FUENTE**
EHUko irakaslea

**«1999an oldarraldi handia egon zen lanaldia murrizteko, eta orain beste bat egin behar da beste neurri batzuk hartuz»**

**OIHANA LOPETEGI**
LABeko ekintza sindikaleko arduraduna

**«Euskal Herrian egingo balitz, eztabaida oso ezberdina litzateke. Lanaldi motzago bati buruz hitz egingo genuke»**

**PELLO IGEREGI**
ELAko negoziazio kolektiboko arduraduna

**«Lan baldintzak negoziazio mahaietan ezarri behar dira, gizarte eragileen artean. Haien autonomia errespetatu behar da»**

**CONFEBASK**

**Nola? Noraino?**

35 ordutik beherako lanaldia aipatu du Igeregik. Urrunago begira jarrita, galdera asko azaleratzen dira. Nola jaitsi lanaldia? Zenbat? Zertarako?... De la Fuente irakasleak erantzun du lehen galdera: «Soldata murrizketa edo lan erritmoa handitu gabe egin behar da. Ez du balio atsedenen tarteen kaltetan edo erritmoa handituz murrizten bada». Halaber, hura sustatzeko diru laguntza publikoen aurka dago: «Azken hamarkadan enpresek irabazi handiak izan dituzte, eta haiekin finantzatu behar da lanaldi murrizketa».

35 orduko lanaldiak totemikoa dirudi, baina 32 orduen aukera ere azaleratzen ari da. «Sindikatuan, gure ortzi muga 30 orduko lanaldia da» aldarrikatu du Lopetegik, eta onartu du eztabaida interesgarria dela: «32 orduek beste zalantza bat azaleratzen dute: zortzi orduko lau eguneko lanaldia edo sei pasatxoko bost egunekoa? Denbora librea zertarako nahi dugun aztertu behar da. Guk ez dugu lau eguneko lanaldia bultzatzen; iruditzen zaigu zaintza arduren banaketarako egokiagoa litzakeela murrizketa egunero egitea».

Lanaldia murriztearen beste zehar ondorio bat enplegu berria sortzen dela da. 1999ko greba orokorra industria moldaketa betean egin zen, eta, haren atarian, *Lanordu gutxiago, lanpostu gehiago* zioten afixaz bete zituzten Euskal Herriko kaleak. Ekuazioa erraza da: arreta edo ekoizpena apaldu ezin den lanpostuetan lanaldia murriztuz gero, langile gehiago behar dira.

De la Fuente gaia azterturikoa da, eta galdera interesgarria egin du: «Noraino jaitsi behar da lanaldia enplegu osoa lortzeko?» Zehaztu du bere ustez enplegu osoa %0ko langabezia dela, «pentsamendu ekonomikoak» %5ean, eta Jaurlaritzak %8an ezarri arren. «Enpleguan eragin nabarmena bilatzen badugu; etorkizunean, agian, 27-28 orduan jarri beharko litzateke asteko lanorduen langa».

Enpresariek ere abantailak onartzen dizkiete lanaldi motzagoei, eta berretsi dute eguneroko auzia direla negoziazio mahaietan, eta «akordiorako tartea» dagoenean adosten direla. Hala ere, ez dute uste pairatzen ari diren langile gabeziarako konponbidea denik. «Horrela ez dela ikusten ari gara», zehaztu du Confebaskek: «Urte batzuk dira lanorduak murriztu zirela, eta eskulanaren afera ez da konpondu. Arazo horrek lotura handiagoa du erronka demografikoarekin eta profil profesional jakin batzuen gabeziarekin». ●

## Fabrika fundazioaren ikerketaren misterioa

● **Lan murrizketari buruzko ikerketa asko egin dira Europan, baita esperimentuak ere. Gipuzkoan bat martxan da, Fabrikan fundazioaren esku. Adegi enpresarien elkartearen inguruko erakunde bat da, eta Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak 6,5 milioiren diru laguntza eman dio hiru urteko ikerketa bat egiteko. Idoia Mendia sailburuak iaz azaldu zuen laguntzarekin «lau eguneko lan astea probatu» ahal izango dela, «soldata murriztu ez eta ordu kopurua igo gabe», eta produktibitatean eta kontziliazioan duen eragina neurtuz.**

**Confebaskek txarrera hartu zuen enkargua, baita sindikatuek ere. Baina sindikatuek zergatik? Juan Manzisidor Fabrikako zuzendariak otsailean Berriari emaniko azalpena irakurrita ulertzen da haien haserrea: «Hori ez da ondo azaldu. Azterketaren oinarria hau da: organizazio bat eraginkorragoa nola izan daitekeen aztertzea. Eraginkorragoak izateko modua bilatu ondoren, bigarren urrats gisa eta, kasuan-kasuan, agian aztertuko genuke lau eguneko lanaldia posible ote den. Organizazio batzuetan, lan jakin batzuetan ahal izango da; beste batzuetan, ez. Azterketa eginez, aukera ezberdinak jarri nahi ditugu mahai gainean». Aldea dago bi bertsioen artean. Esan bezala, hiru urteko egitasmoa da, eta emaitzak ikusi ahala argituko da zalantza.**